

# begira



39. zk.  
2017ko martxoa

 **ULMA**

MARKEL OLANO.  
Gipuzkoako Diputatu  
Nagusia

SUSANA UNZURRUNZAGA.  
45 urte ULMAn lanean





ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA <  
**Polimero hormigoizko lama**  
personalizatuak



ERREPORTAJEA <  
**Susana Unzurrunzaga,**  
45 urte ULMAn lanean



ALBISTEAK >  
ETA GAURKOTASUNA  
**ULMA Pipingek**  
**STAR 1 homologazioa**  
lortu du **SHELLen**



> ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA  
**Alfaro Brakesek** konfiantza du ULMArengan  
bere **biltegia automatizatze**ko



> ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA  
**Gipuzkoako Diputatu Nagusi Markel**  
**Olano** ULMA Taldean bisitan

## 2017ko martxoa

### 4 albisteak eta gaurkotasuna

ULMA Packaging, bere markak gaitzen berriro

ULMA enkofratu eta aldarmioak Europa Erdialdeko araztegiak handienera

Berrotegiak mexikar florikulturarako

ULMA Conveyor Componentsek Minera Escondidan homologatzeko eskari bat jaso du

### 16 aurrez aurre

Markel Olano, Gipuzkoako Diputatu Nagusia

### 18 erreportajea

Susana Unzurrunzaga, 45 urte ULMAn lanean

### 20 ULMA Fundazioa

Gizarte pribilegiatua

### 22 agenda eta iradokizunak



**ARGITARATZAILEA:**  
Grupo ULMA S. Coop.  
Garagaltza auzoa 51  
20560 OÑATI

**Tel.:** 943 25 03 00

**ZUZENDARITZA:**  
Carlos Sarabia  
csarabia@ulma.com

**EDITORE KONTSEILUA/ERREDAKZIOA:**  
Nora Altube, Joseba Alberdi,  
Elena Goirizelaia, Maria Sendin,  
Irene Moreno, Edurne Unzueta,  
Romu Artech, Jesús Mari Eguiluz eta  
Carlos Sarabia.

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
Igone Basterra  
ibasterra@ulma.com

**INPRIMATEGIA:**  
Gertu S. L.

**EUSKARAZKO ITZULPENA:**  
EMUN Koop. E.



Paper ekologikoa

## ULMA CONVEYOR COMPONENTS Proiektuak Peruko Cuajone eta Bambaserako

Ipar Amerikako ingeniariak batek ULMA Conveyor Componentsi esleitu dio arrabolak eta euskarriak hornitzeko kontratua, Peruko Minera Las Bambasen kobre lantegiak zabaltzeko –MMG australiar meatze taldearena da–, baita Cuajone, Southern Copperenak ere –Grupo Mécicorena da–.

### | Minera Las Bambas

**Kokapena:** Cotabambas probintzia, Apurimac eskualdea, Peru

**Produktuak:** kobrezko kontzentratua (urrairean eta zilarraren azpiproduktuak) eta molibdenozko kontzentratua

**Meategiarekin bizitza gutxi gorabehera:** 20 urte

**Meategi mota eta metodoak:** aho irekian Prozesuaren metodoa: kobre

konbentzionalaren kontzentratzailea  
**Mea erreserba:** 7,2 milioi tona metriko kobre (kobre araztasuna %0,73)

**Baliabide minerala:** 12,6 milioi tona metriko kobre (kobre araztasuna %0,61)  
ULMA Conveyor Componentsek gaur egun meategi horretarako birjarpen kontratu bat dauka.

### | Sothern Copper Cuajone

**Kokapena:** Peru hegoaldea, Limatik 840 km-ra, Moquegua departamentua.

**Produktuak:** kobre eta molibdenozko kontzentratua

**Meategi mota eta metodoak:** aho irekian Prozesuaren metodoa: kobre konbentzionalaren kontzentratzailea

**Mea erreserba:** 8,7 milioi tona metriko kobre

**Beste batzuk:** Fundizio bat eta findegi bat ere lantzen ditu Toquepala eta Cuajoneko meategien mendebaldean, Peruko kostako Ilo hirian.

Iparramerikar ingeniariak baten lehen eskari hau oso garrantzitsua da, AEB herrialde estrategikoa delako ULMA Conveyor Components nazioartekotzeko planetan. Gainera, Ipar Amerikako zein Hego Amerikako proiektu gehienak AEBtik kudeatzen dira.



### ULMA CONSTRUCTION

## ULMA enkofratuak eta aldamiok Erdialdeko Europako ur araztegiak handiengan

PRAGAKO UR TRATAMENDURAKO PLANTA DA TXEKIAN EGITEN ARI DEN PROIEKTURIK HANDIENA ETA ERDIALDEKO EUROPAKO UR ARAZTEGIK HANDIENA BIHURTUKO DA.

Proiektuaren barruan bi jarduketa egingo dira, 400.000 m<sup>2</sup>-ko azalera, 500.000 m<sup>3</sup> hormigoi erabiliz: Císařský Ostrov uhartean jada dagoen ur tratamendurako plantaren birmoldaketa eta instalazioen hedapena. Hedapen horri "New Water Line" izena jarri zaio, eta tratamendu kimiko gehigarria duen prozesamendu mekaniko eta biologikorako lerro independentea da.

**Proiektuaren dimentsioak eta jarduketan aniztasuna direla eta, soluzio espezifikoak behar izan dira** egikaritze gune bakoitzerako. Ura etengabe zirkulazioan egon beharra eta planta hauetan erabiltzen diren teknologiak direla eta, geometria eta akabera zehatzekin gauzatu behar dira. MK sistemaren laguntzarekin, dela bertikalean erabilita ENKOFORM VMK sistemarekin dela horizontalean ENKOFORM HMK sistemarekin, **30etik gora eraikuntza berezi** sortu dira. Gainera, 12 metro baino gehiagoko hormak behingo batean hormigoiztatu dira, MK txarrantzez indartutako ORMA enkofratu modullarekin.

ULMA Txekiako lantaldeak sistemak biltegietan aurrez muntatuta hornitu ditu, eta horrela denbora gutxiago behar izan da obran muntatu eta instalatzeko. Bezeroaren eta ULMA lantaldearen arteko lankidetzak estua eta etengabea funtsezkoa izan da proiektua ezarritako irizpide eta epeen arabera garatzeko.

**ULMA soluzio integralaren barruan sartzen da obran bertan etengabe aholkatzea.** Arlo bakoitzeko teknikari espezializatuak presente egon dira muntaketa koordinatzen, materiala entregatzen eta beste hainbat lanetan laguntzeko.

Proiektu honetan, segurtasuna funtsezkoa izan da. **ULMAk erakutsi du konprometitu dagoela prozesu osoan segurtasuna bermatzearekin**, eta, horretarako, eskatzen diren segurtasun sistema guztiak hornitu ditu.



### ULMA PIPING

## ULMA Piping, SAUDI ARAMCOren gas planta berrirako FADHILI proiektuan partaide

SAUDI ARAMCO MUNDUAN GEHIEN EKOIZTEN DUEN PETROLIO ENPRESA DA.

ULMA Pipingek kontratu bat sinatu du aurten mundu gas naturaleko plantarik handienetako bati bidak hornitzeko, Fadhilin, Saudi Arabian.

Planta berriak Khursaniyah eta Hasbah hobietako 2.500 milioi oin kubiko gas prozesatzeko ahalmena izango du.

Fadhilik, Aramcok Wasit eta Midyanen dituen beste gas proiektu batzuekin batera, beste 5.000 milioi oin kubiko prozesatzeko ahalmena gehitu dezake, eta, horrenbestez, arabiar konpainiak barne eskariari erantzun ahal izango dio, erabilera industrialerako zein elektrizitatea sortzeko.

Saudi Aramco munduan petrolio gehien ekoizten duen enpresa da, egunean 10 milioi upelekin, eta egiaztatutako erreserbarik handienak ditu, 260.000 milioi upelekin.

Gainera, Aramco gas natural likuatuaren lehen esportatzailea da. Gasaren ekoizpena Saudi Arabiaren lehentasun nagusietakoa da, izan ere, elektrizitatea sortzeko petrolioaren erabilera mugatu nahi du, bere ahalmena esportazioak handitzeko gordeta.

Aramcok Fadhiliko proiektuan aurrera jarraitzeko erabakiak erakusten du Saudi Arabiak inbertsio handiak egiten jarraitzen duela gasaren arloan, bere etorkizun ekonomikorako funtsezkoa dela jotzen baitu.

### ULMA PACKAGING

## ULMA Packaging, bere markak gaintzen berriro

Joan den urtearekin alderatuta %8 hazita, ULMA Packagingek bere markak hautsi ditu berriro ere, ekitaldiko salmentetan 217 M€-ko kotara iritsi baita.

Horrela erakusten du erreferentziako informazio ekonomiko-sektorialeko Alimarket argitalpenak ere. Komunikabideak albistea jakinarazi berri du, bai bere aldizkarian zein webgunean, eta bertan dio ULMA Packagingen esportazioak 173,6 M€ izan direla.



Horrez gain, Alimarketek bere azken txostenean jaso zuen bezala, ULMA Packagingek lider jarraitzen du Espainian elikagaiak ontziratzeko makineriaren merkatuan, %26,7ko kuotarekin, estatu mailako lehiakideei oso tarte handia aterata.

### ULMA HANDLING SYSTEMS

## Orango terminal berria (Aljeria) Baggage Handling sistemarekin hornituko da

Nazioarteko proiektu berri batek ULMA hedatzeko estrategia finkatu du, EGSA Oranek konfiantza jarri baitu ekipajeak tratatu, ikuskatu eta sailkatzeko ULMA Handling Systemsen garatutako sistemetan.

EGSA Oran erakundeak Aljeriako 10 aireportu baino gehiago kudeatzen ditu, eta **ULMA Handling Systems**engan jarri du konfiantza Orango aireportuko terminal berriko **Baggage Handling** sistema garatzeko, zeinak nazioarteko hegaldiak hartuko dituen.

Aljeriako hiriko terminal berriaren irteera sistemak orduko 2.500 ekipaje prozesatzeko ahalmena izango du. Fakturatzeko 19 mahai eta ikuskatzeko 2 zirkuiturekin hornituko da. Sistema kontrolatzeko ULMAren kudeaketa sistema erabiliko da, eta horrek malgutasun handia emango dio aireportuari hegaldiak

formazioko karruseletara esleitzeko. Ekipaje berezietarako linea bat ere egongo da terminalean erabiltzeko. Iritsieren sistemak 3 karrusel izango ditu, ikuskapena integratuta izango duten elikagai lerroekin, eta ekipaje berezietarako lerro bat ere egongo da.

Terminal berriaz gain, ULMA Handling Systems dagoeneko badagoen terminalean sistema berri bat garatuko du ekipajeak tratatu eta ikuskatzeko. Ekipaje estandarrek fakturatzeko 12 mahai gehiago izango ditu, ekipaje berezietarako 1 mahai eta ikuskapen lerro bat. Terminal horretan, 1.200 ekipaje prozesatuko dira irteeren sistematan, eta halaber iritsieren sistema ere ekipatuko du, 2 karruselekin.

Ingeniaritza logistikoko enpresak proiektu aitzindaria garatuko du aljeriar hirian, eta ULMAren nazioarteko hedapena finkatuko du.



## ULMA TALDEA

### Enpresagintzako ikasleen bisita ULMA Taldean



Joan den otsailean, Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzietako fakultateko 30 ikasleek ULMA Taldearen instalazioak bisitatu zituzten.

Ikasleek myGADE graduko ibilbide akademikokoak dira –GADERen aldaera berria da–, eta bertan ikasleak bai ikasgeletan bai enpresetan prestatzen ditu. ULMA Taldeak ere, unibertsitatearen mundutik hurbil dagoen enpresa izanik, programan parte hartzen du.

Horrelako bisitetan ohikoa izaten denez, asmoa zen ULMA eta bere Negozioen aurkezpena egitea. Halere, oraingoan, Taldeko Marka eta Komunikazio Arloaren eskutik, aurkezpen desberdin samarra egin zen, kontuan hartuta hitzaldiaren hartzailak gazteak zirela.

Ohiko aurkezpena egin beharrean, **ULMAri buruzko lehiaketa txiki bat antolatu zen, ikasleen partaidetza sustatzeko.** Horretarako aukeratu zen formatua izan zen ikasleak 6 taldetan banatzea eta ULMAri buruzko hainbat galderari erantzutea. Galdera bakoitza puntu banarekin baloratzen zen, eta azkenean puntu gehien lortzen zuenak sari bat jasoko zuen.

Galdera bakoitzaren ondoren ULMAri buruzko hainbat kontzeptu azaldu ziren, hala nola bere historia, Taldea osatzen duten Negozioen kopurua, zertan diharduten, zenbat fakturatu dute, ULMA zenbat herrialdetan dagoen presente, bazkide eta langile kopurua, eredu kooperatiboaren eta beste enpresa

mota batzuen arteko aldeak, etab.

Horrenbestez, ikasleek ULMAri lotutako gai guztiak ezagutu ahal izan zituzten, modu atsegin eta parte hartzailean.

Amaitzeko, eztabaida txiki bat sortu zen, ikasleen ahotik jakiteko zein arrazoiengatik erabakiko luketen enpresa batean lan egitea eta ez beste batean. Hau da, bi aldeak gertatu ziren irabazle.

Finean, **esperientzia aberasgarria bai ULMArentzat bai ikasleentzat beraiantzat.**

## ULMA CONSTRUCTION

### ULMAk azken belaunaldiko etxebizitzaren eraikuntza proiektuan parte hartu du Txilen

Txile da planetan dagoen herrialderik sismikoena; beraz, eraikuntzari buruzko araudiak oso zorrotzak dira eta etengabe berrikusten dira. Herrialdean egiten diren eraikuntza guzti-guztietan bete behar dira irizpide horiek, berdin dela zein den eraikuntzaren funtzionaltasuna.

Araudi honen arabera eraiki du Maestra eraikuntza enpresak Poeta Pedro Prado kondominioa, Santiago hiriburuaren erdialdetik hurbil dagoen bizitegi auzo batean. Bi dorreek 27na solairu dituzte, eta

solairu bakoitzak 2.400 m<sup>2</sup>, eta horrez gain 3.000 m<sup>2</sup>-ko aparkaleku bat daukate.

Eraikitzeko, efizientzia energetikoa egiaztatuta duen teknologia erabili da, eta horrek isolamendu akustiko eta termikoko indize handiak eman dizkio eraikuntzari. Proiektuan parte hartu duten enpresa guztiek ISO 9001 arauaren araberako kalitatea egiaztatuta dute eraikuntzan.

ULMAk zerbitzu pertsonalizatua eman du proiektuaren hasieratik, eta soluziorik egokienak eskaini ditu teknologiarik

dagokionez eta entrega epeei dagokienez, bai eta alokatutako ekipoen berrerabilpenari eta errotazioari dagokienez ere.



## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### ULMA itxitura eta fatxada CEIP ZELAIETAN



#### FITXA TEKNIKOA:

ARKITEKTOA: Inforlur

FATXADA AIREZTATUA: 480 m<sup>2</sup>

KOLOREA-TESTURA: VANGUARD URA Kolore berde berezia eta CREAKTIVE Mahatsondo hostoa M03.

FORMATUA: 900 x 900mm

ERABILITAKO PRODUKTUAK: Fatxaden itxiturak eta Fatxada aireztatua, Vanguard gama, URA testura

**ULMA itxitura eta fatxada CEIP ZELAIETAN. Eraikin berezia, oso efizientea eta errekor denboran egikaritua.**

ULMA Architectural Solutionsek Itxitura eta Fatxada Aireztatuko soluzioa hormigoi polimerozko panelekin gauzatu du Haur eta Lehen Hezkuntzako Zelaieta ikastetxean, Bizkaiko Abadiño herrian.

#### EFIZIENTZIA ENERGETIKOA

Jabetzak eraikin oso efizientea nahi zuen, 0,20 azpiko transmisio-faktore termikoarekin, energia kontsumoan ZERO duen eraikina lortzeko. **ULMA Fatxada Itxiturak** premisa horrekin betetzen du, izan ere **efizientzia energetiko handiko sistema industrializatua** da, jasagarritasun irizpide gorenak betetzen dituena.

#### EGIKARITZE AZKARTASUNA

Proiektuaren beste helburuetakoa zen obra osoa sei hilabetean amaitzea, epe oso doitu, bete zitekeena, baldin eta itxitura industrializatua enpresa bakarrak eraikiko balu. ULMA fatxada itxiturak, lehorreko multigeruza sistemari esker, **obran jartzeko errendimendua eta kontrol erraztasuna ohiko itxiturarenak baino askoz handiagoak ditu**, eta antzeko kostuan.

#### URA TESTURAREN EFEKTU OPTIKOA

**URA testuraren efektu optiko ikusgarriak berde tonalitate desberdinak erabili izanaren irudipena sortzen du.** Egiazki kolore bakarra da, tonu desberdinen efektua lortzen duena URA testurak norabide desberdinetan instalatutako uhinetan duelako akabera (bertikalean, diagonalean eta horizontalean).

Halaber, CREAKTIVE testura erabili da, zeinak kolore beltzeko mahats-orria simulatzen duen, eta uhinen testura berdearekin kontrastean, obra honek edertasun handiko eraikina egiten du.

## ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

### ISO 9001 eta 2. mailako ISO 15504 ziurtagiriak lortu dira

2 ziurtagiri horiek lortu izanak agerian jartzen du ULMA Embedded Solutionsek bere prozesuak kudeatzeko sistemarekin eta etengabeko hobekuntzarekin duen konpromisoa.

ISO 9001:2015 araua ezarrita, ULMA Embedded Solutionsek beste urrats bat egin du bere kalitate sistema hobetzeko, betiere bezeroen eskakizunak asetzeko zerbitzuak modu koherentean emateko helburuarekin.

Prozesuen bikaintasuna etengabe bilatuz, ULMA Embedded Solutionsek ISO

15504 SPICE arauaren ziurtagiria eskuratu du (Software Process Improvement and Capability Determination).

Nazioarteko arau hori prozesuak ebaluatzeko garatu da, eta ISO/IEC 12207 arauarekin batera erabiltzen da (prozesuen erreferentziako eredua), softwareak garatzeko eta mantentzeko prozesuen ahalmena eta heldutasuna ebaluatzeko eta hobetzeko.

Ziurtagiri horiek egiaztatu egiten dute ULMA Embedded Solutionsen diseinatu eta inplementatzen diren prozesuek

etengabeko hobekuntza bermatzen dutela euren bezeroei eskaintzen dizkieten zerbitzuei dagokienez.



## ULMA AGRICOLA

### ULMA Agricolaren G14 berotegiaren 20 hektarea Ipar Amerikan

2016ko ekitaldian, besteak beste, ULMA Agricolak bi proiektu handi instalatu ditu Ipar Amerikan, guztira 20 ha inguru betez, G14 berotegiko egitura oso teknifikatuekin.

ULMA Agricolaren G14 modelook forma gotikoko egitura du, eta 14,4 m zabal da.

Dimentsio horiekin hobeto kontrolatzen da klima, izan ere, barruko tenperaturan ahalik eta aldaketarik gutxien egotea ahalbidetzen du. Egitura diafanoagoak direnez, egiturak landareen gainean ahalik eta itzalik gutxien egitea lortzen da eta, eguzkiaren erradiazioaren intzidentzia handiagoa izanik, laborearen ekoizpena handiagoa izatea lortzen da. 90x50-eko tutuan egindako arkuak sendotasun handia ematen diote egiturari.

ULMA Agricolako taldeak proiektuaren hasieratik laguntzen die bezeroei, proiektuan instalatuko diren elementu guztiak definitzeko aholkua emanez. Egitura motatik hasi eta

elementu osagarrien definizioraino eta ekipamendurik egokien definizioraino, labore mota bakoitzerako klimarik egokiena lortzeko.

20 ha inguru hartu dituzten bi proiektu hauei dagokienez, berotegiek kasu bakoitzerako egokitutako alboko eta aurreko aireztargailuak dituzte, irekitako aireztapenen balantzeari buruz egindako azterketan oinarritua, eta horrela airea aldatzeko beharrezko baldintzak egotea lortzen da, eta landareei beharrezko

konforta ematea, egoki garatu daitezzen.

Gainera, gune bakoitza hornitzeko kamera bikoitzeko sistema bat dago, birzirkulatuzaileak, ureztapen hidroponikoa zein tantaz tantatakooa, aire beroko berogailuak eta CO2-aren banatzaileak. Klima eta ureztapen mekanismoak kontrolatzeko ekipamendu bat dago, ezarritako kontsignak ikuskatzeko eta administratzeko.

ULMA Agrícola bi proiektuak ikuskatzeaz eta koordinatzeaz arduratu da.



## ULMA ORGA JASOTZAILAK

### Erreleboa ULMA Orga Jasotzaileetako gerentzian

**1999TIK KOOPERATIBAREN GERENTE IZANDAKO ANGEL SANCHEZ FERNANDEZEK KARGUA UTZI DU ERRETROAGATIK.**

ULMA Orga Jasotzaileetako gerentzian 17 urtez jardun ondoren, Angel Sanchez Fernandezek erretiroa hartu zuen, joan den abenduaren 31n. 1956an Aramaion jaioa (Araba), bere ibilbide profesionala ULMA Taldeari lotuta egon da 27 urtez, horietatik 10 ULMA Construcciones (5 urte Finantza zuzendari eta beste 5 Aldamioen lerroko gerente), eta 17 urte ULMA Orga Jasotzaileetan. Enpresa Zientzietako lizentziatua Deustuko Unibertsitatean, Kudeaketa Aurreratuko Masterra (MEGA) Deusto Business Schoolen eta Industria Kooperatiboan Zuzendaritzako Masterra Mondragon Unibertsitatean.

Angel Sanchezek 32 milioi euroko fakturazioarekin eta 160 langile baino gehiagorekin utzi du ULMA Orga Jasotzaileak 2016an, zifra horien barruan

egonik ULMA Orga Jasotzaileak, ULMA Safe Handling Equipment (ULMA Inoxtruck) eta Centroman enpresak, guztiak ere USM, ULMA Servicios de Manutención S. Coop. Taldean integratuta.

Angel Sanchezen ibilbide profesionalen azpimarratu daiteke krisi ekonomikoaren urterik makurrenak gainditzeko egindako lana, antolamenduaren berregituraketa gidatuz, negozio ereduaren aldaketa bultzatuz eta produktu eta merkatuen dibertsifikazioaren alde eginez.

ULMA Orga Jasotzaileen negozioaren oinarrian orga berriak inportatu eta merkaturatzea zegoen, baina, gerora, orgak saltzeaz gain, bere jarduera alokairura, Laguntza Teknikoko Zerbitzura eta ordezko piezen salmentara bideratu zuen.

Gerente lanetan emandako azken hilabeteetan, Angel Sanchezek dagoeneko bere ordezko eta gaur egungo gerentea den Francisco Javier Elias Chocarroren aldamenean izan da, erreleboa modu natural eta koordinatuan egin ahal izateko.



## ULMA PIPING

### ULMA Pipingek merkatu berriak irekitzera zuzendu du bere estrategia

ULMA Forja, S. Coop., merkatu berriak irekitzeko estrategian, balbulen banatzaile errusiar batekin lankidetzan ari da. Konpainia Velikiy Novgoroden dago, Errusiako balio errepublikanoak eta demokratikoak sortu ziren hirian, San Petersburgotik 130 kilometrorra.

Errusiar enpresak OIL & GAS sektoreko marka entzutetsuekin lan egiten du, produktu aukera zabalarekin: Control valves, Shutoff valves, Safety relief valves, Check valves, etab.

ULMA Pipingek, berriz, kontrabridak hornitzen ditu, Piping sisteman ekipamenduaren muntaketa egiteko. Brida bakoitzaren geometria bezeroak definitzen du, ASME arauaren arabera osagai batzuk eta Errusiako GOST arauari erantzuten dioten beste batzuk elkartu behar baititu. ULMA Forja, bridaz gain, junturak, torlojuak eta azkoinak ere hornitzen ditu, hau da, loturarako set osoa.

Saltzeko kanal horren bitartez, gaur egun Mozyr edo Novokuibyshevsky bezalako findegietan aurkitu daitezke ULMAko bridak. ULMA Forjak Errusiako merkatuan egin duen sarrera hori sendotzeko, Italiako EPC- Tecnimont etxearekin ere kontratu bat lortu du bridak saltzeko, Mosku inguruan dagoen CORU findegirako.



## ULMA PACKAGING

### ULMA Packaging, berlingo Fruit Logistica azokan presente

Azoka derrigorrezko hitzordua da fruta eta barazkien ekoizle guztientzat. ULMA Packagingek ez zuen huts egin eta, berriro ere, nobedade interesgarriak aurkeztu zituen standera hurbildu ziren bisitariarentzat.

Berrikuntza modura, produkzio handiko termozigilatzaile bat aurkeztu zen erretiluko fruta eta barazkietarako, zeinak minutuko 150 ontzi ere biltzeko abiadura hartzen duen, 25 ziklo/min kadentziarekin. TSA 875 P modelo da, eta bereziki diseinatu da sektore horrentzat, TSA 680 P ahizpa txikiarekin batera.

Azokan aurkeztutako ereduak tapako filma laser bidez zulatzeko sistema bat zeukan, ontziraturako produktuak arnasa egoki hartzeko.

Merkatuan lehendabiziko aldiz, FR 200 modelo aurkeztu zen, hau da, biltzeko flow pack birakari bat, Florida modelotik datorrena.

Aipatzeko beste nobedadeetako izan zen VTC 840 makina biltzaile bertikala, ultrasoinu bidezko soldadurarekin Makina hori laugarren gamako barazien aplikazioetara zuzenduta dago, esaterako, entsaladetara. Batzuetan, produktua elikatzen zailtasunak soldadurako arazoak eragiten ditu, zigilatze gunean produktua egon ohi delako. Ultrasoinuen sistemaren bitartez, itxituraren erresistentzia handia bermatzen da, berdin izanik paketea zigilatze gunean produkturik dagoen ala ez.

## ULMA INOXTRUCK

### 2016, lehen ekitaldia irabaziekin

Hainbat urtez gogor lan egin eta gero, ideia huts batetik abiatuta produktuaren katalogoa garatu eta nazioarte mailako banaketa sare bat sortu eta gero, azkenean iritsi da zuekin guztiekin albiste eder hau partekatzeko eguna: Inoxtruckek irabaziekin itxi du 2016. urtea.

Oraindik ere urte hautan I+Gan egindako gastua amortizatu behar bada ere, **salmentak ia %40 hazi dira 2015arekiko** (ia %20 GParekiko) eta, horri esker, 2016aren amaieran irabazi txiki bat lortu dugu. 2,25 milioi euroko salmenta bolumenarekin,

2016ko ekitaldiko emaitzak **%7ko irabazia litzateke salmentekiko**, I+Gko gastuaren eragina deskontatuta.

Emaitza ikusgarria, ezinezkoa zatekeena ULMA Inoxtrucken lan egiten duten profesionalen talde osoaren ahaleginik gabe, eta une batean edo bestean spin-off honi lotuta egon diren beste askoren ekarpenik gabe.



## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### Polimero Hormigoizko lama pertsonalizatuak

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONSEK NEURRIRA EGINDAKO POLIMERO HORMIGOIZKO LAMAK DISEINATU DITU MALLORCAKO PALMAKO BANCA MARCH-EN EGOITZARAKO.

ULMA polimero hormigoizko lamak hornitu dira Mallorcako Banca March-en eraikinaren fatxadan. Eraikinaren fatxada arkitektoek estali nahi zituzten zutabeez inguratuta zegoen, estetikoki askoz erakargarriagoa izango zen fatxada lortzeko. Horretarako, ULMAK lama bereziak diseinatu eta fabrikatu zituen eraikinaren beharretara egokituz.

175 lama instalatu ziren aluminiozko zutoinei eutsita forjatuen artean. ULMA aurrefabrikatuek obran kolokazio errendimendu handia eskaintzen dute, izan ere oso errazak dira instalatzen eta manipulatzeko, duten arintasunagatik.



ULMAren polimero hormigoia proiektu hasieratik zegoen aginduta, material ezin hobea baita kostaldeko guneetarako. Polimero hormigoia material erresistentea izateko ezaugarrien artean daude bere iragazgaitasuna eta erresistentzia hezetasunaren eta kresalaren aurrean.

## ULMA HANDLING SYSTEMS

### Alfaro Brakesek konfiantza du ULMAren bere biltegia automatizatzen

Alfaro Brakesek, balazta, direkzio eta esekidura osagaietako soluzio nagusia, Alfaron (Errioxa) kokatuta duen lantegian biltegi automatizatu izango du, ULMA Handling Systemsek garatutako proiektuari esker.

Alfaro Brakesek esperientzia handia du produktu aitzindariaren garapenean eta arreta berezia eskaintzen dio bere produktuen kalitateari, merkatura berrikuntza ekarri. Egin duen ibilbideari esker, ospe handia lortu du segurtasun eta iraunkortasun esparruetan; horregatik, automatizazioaren aldeko aukera lehenetsi du Alfaron (Errioxa) kokatutako bere lantegian.

ULMAk garatutako duen automatizazio logistikoaari esker, Alfaro Brakesek bere prozesu logistikoa produktibitatea handitu eta bere eraginkortasuna hobetuko du, bere produktuen trazabilitatea hobetzearekin batera eta, ondorioz, hobetu egingo du bere bezeroei eskaintzen dien zerbitzua.



## ULMA PIPING

### ULMA Pipingek STAR 1 homologazioa lortu du SHELLen


Hiru urtez lana gogotik egin eta gero, ULMA Pipingek STAR 1en hornitzailea izateko oniritzia lortu du Shell Royal Dutch petrolio enpresaren aldetik.

Shell Royal Dutch hidrokarburoen enpresa ingeles-holandesa bat da, petrolioaren eta gas naturalaren sektoreetan diharduena, gasolinak fintzeaz gain. Munduko multinazional handienetakoa da, petrolioaren sektoreko lau handienetako bat, BP, ExxonMobil eta Totalekin batera.

2016ko martxoan SHELLeko auditoriako talde batek Zubillagako eta Lazkaoko instalazioak bisitatu zituen. 2016aren amaieran auditoria arrakastaz gauditu eta gero, ULMAK homologazioa egiaztatzen duen gutuna lortu zuen.

Lehenago, ULMA Piping STAR 2ren hornitzaile moduan zegoen homologatuta, baina SHELLen proiektuen kuota oso txikia eskuratu zezakeen. BANATZAILEEK eta EPCistek STAR 1 etxeak baino ez dituzte kontuan hartzen.

Petrolioaren prezio baxuak eragin duen ziurgabetasun egoeran, Shellk garatzen dituen neurri handiko proiektuak hornitzeko kontratuetan sartzeko aukera edukitzea oso albiste ona da, zalantzarik gabe. Ez dezagun ahaztu ULMA Pipingek fabrikatzen dituen brida guztiak "onartutako" OIL&GAS merkatura zuzentzen direla eta, horregatik, petrolio eta gas enpresa handien homologazioak giltzarri dira negoziarako.



## ULMA CONVEYOR COMPONENTS

### ULMA Conveyor Componentsek Minera Escondidan homologatzeko eskari bat jaso du

100 ITZULERAKO GIRLANDA DIRA, ETA HORIEKIN ESPERO DA INSTALAZIOKO UHAL BATEN GARBITASUN ARAZOAK KONPONTZEA.

Minera Escondida BHP Billiton multinazionalak lantzen duen meategi bat da. 1988an sortu zen, eta munduan kobre gehien ekoizten duen meategia da. Antofagasta hiririk hego-ekialdera 170 km-ra dago, Txileko bigarren eskualderik handienean, eta kobrezko kontzentratua eta kobrezko katodoak ekoizten ditu.

ULMA Conveyor Componentsen aurre egin beharreko urteko eskaria 100 itzulerako girlanda dira, eta horiekin espero da instalazioko uhal baten garbitasun arazoak konpontzea. 95 girlanda helikoidal bidaliko dira, eta beste 5 poliuretanozko uztaietara hobetuta, bezeroak probatzeko eta konparatzeko bi soluzioetatik zein egokitzen den ondoen bere beharretara. Girlandak instalatzeko uhal CV 25 delakoa da, hau da, 1 km-ko garraiatzaile mugikor bat, zeina Oxidoen planta berriaren barruan dagoen (OLAP). Tartearen zabalera 1600 mm da, eta 3000 t/h garraiatzeko gaitasuna dauka.

Eskari horrekin, ULMA Conveyor Components sendotu egin da Txileko meategi garrantzitsuenetarako material banaketan.

## ULMA CONSTRUCTION

### ULMA Constructionek webgune lokal berriak argitaratzen jarraitzen du, bezeroarengako orientazioa indartzeko

Arlo digitalean ere agerian geratzen dira ULMA Constructionek nazioartekotzeko duen bokazioa eta herrialde bakoitzaren kulturaren eta eraikitze metodoen gainean egiten duen analisia, ulertzea eta egokitzapena.

Egokitzapen hau bat dator ULMA Constructionek merkatu bakoitzaren publikoari zuzentzeko duen modu bereizle eta bereziarekin. Nazioarteko webgune korporatiboaz gain, beste 13 webgune ditu gaur egun ULMA Constructionek, merkatu bakoitzerako aukeratutako enkofratuen, aldamioren eta segurtasun sistemen portafolioak erakusteko, eta hartara, herrialde bakoitzaren errealitateari eta bezero bakoitzaren beharrei egokitu ahal izateko.

Nazioarteko www.ulmaconstruction.com webgune korporatiboa orain 3 urte inguru argitaratu zenetik, progresiboa izan da webgune lokalak edukien kudeaketa-plataforma komunean txertatzea.

Merkatu bakoitzaren hizkuntza, ezaugarri lingustikoak eta termino teknikoaren erabilera funtsezkoak dira ULMA Constructionen eta bere bezeroen arteko loturarako; halaber, arlo digitalean ere euren arteko harremana erraztu egiten dute, bezeroak bilatzen duena eta ULMA Constructionek eskaintzen duena kontuan hartuz, eta ULMA lehen emaitzetan azaltzen laguntzen dute herrialde bakoitzean ezagunenak diren eduki-bilatzailen bidez.



## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### Pikolinek ULMA Drainatzean jarri du konfiantza Zaragozako bere fabrika berrirako

**KOMPAQDRAIN® ULMA kanalak Pikolinen instalazio berrietan, atsedenerako sektorean Europan industria konplexu handi eta aurreratuenan.**

85.000 metro karratuko Pikolinen instalazio berriak egiteko 50 milioi euro inbertitu ditu Aragoiko enpresak, eta dioenez, atsedenerako sektorean, Europako industria konplexu handiena eta aurreratuen da.

Proiektu adierazgarri honetarako, **Pikolinek eta Idom ingeniari-tza espezialistak ULMA Architectural Solutionsen drainatze sistemen alde egin dute, zeinak neurria egindako kanala garatu duen proposatutako baldintzen arabera.** Aragoiko enpresak zulo txikiagoko eta zoru laueko drainatze



kanala behar zuen orgak pasatzerakoan bibrazioak saihesteko.

Guztira **1.910 metro lineal** instalatu dira **KOMPAQDRAIN® KVFD200.10R.E2530 Industry kanal motakoak, MAX FLOW® sistemarekin.** Hormigoi polimeroan fabrikatutako kanal trinko berria da, non kanalak eta saretak pieza bakarra osatzen

duten, zurruntasun handiagoa bermatuz. Gainera, D400 karga motarako egokia da, EN-1433 arauaren arabera, eta bereziki intentsitate handiko trafiko lekuetarako diseinatuta dago.

## ULMA TALDEA

### Erretiro aktiboa prestatzeko programa

Erretiroak bizitzan dakarren erabateko aldaketa egun batetik bestera egiten ez den prozesu bat da, baizik eta prestatu daitekeen prozesua, bizitzan zeharreko ikaskuntza esaten zaionaren barruan kokatuta. Bizitzako beste etapa batzuetan rol jakin bat jokatzeko prestatzen garen bezala, erretiroa hartzeko unean komeni da egoera berrira egokitzeko prestatzea.

Aldaketa horretan laguntzeko, ULMAk erretiro aktiborako prestatzeko programa eskaintzen die bere bazkideei. Programa bizitzaren etapa horretan daudenei zuzenduta dago, eta alderdi pertsonalak eta sozialak hartzen ditu: nola pentsatzen dugun, nola sentitzen garen, nola jarduten dugun, nolako harremanak ditugun, zer kezka ditugun, nola egiten diegun aurre kezkei, zein interes ditugun, nola betetzen dugun denbora, etab. Kontua da osasunaren, parte hartzearen eta segurtasunaren arloetan aukerak optimizatzeke prozesu bat aktibatzea, bizitza kalitatea hobetzeko helburuarekin,

pertsonak "lan bizitza aktibotik" "erretiro aktibora" igartzeko unera hurbiltzen diren heinean.

Programaren azken edizioan 12 lagunek parte hartu dute, eta guztira 16 ordu eman dira 4 egunetan. Aldaketaren kudeaketa, teknologia berriak eta sare sozialak, ongizate fisikoa, alderdi

juridikoak, harremanen osasuna eta parte hartze komunitarioa izan dira landutako gaiak. Programaren parte hartzaileek egin duten balorazioa oso gogobetegarria izan da, eta antzeko egoeran dauden beste pertsonak animatzen dituzte programan parte hartzera.



**PIZTU ZURE JUBILAZIOA / ACTIVA TU JUBILACIÓN**

## ULMA CONSTRUCTION

### ULMA Construction soluzio malguak Dubai City Walk merkataritzagunean



ULMA Constructionek soluzio azkarrak, errazak eta, batez ere, malguak eskaini ditu proiektu batean, lodiera ugari eta altuera askotariko lauzak eskainiz.

Dubaiko hiria etengabe hazten ari da eta munduan erreferente bihurtzen diren konplexu arkitektonikoak sortzen ere etengabe ari da. Dubai City Walk da konplexu horietako bat.

Eraikinak 13.000 m<sup>2</sup> ditu, eta 52 saltoki eta jatetxe hartzen ditu bere

barruan, bertakoei eta turistei zerbitzua emateko. Gainera, gun e handi bat du kanpoaldean, eta handik inguruez gozatu daiteke eta BurjKhalifa ikusi, munduko etxe orratzik handiena baita.

ULMA Constructionek soluzio malgua eta planta bakoitzera moldatu daitekeena eskaini du, izan ere, proiektu honetan lodiera ugari daude eta askotariko altuerak dituzten lauzak proiektatu dira. Lauza aurrefabrikatuak ere erabili dira, in situ hormigoiztatutakoekin konbinatuta.

Funtsean, bi sistema hauek batera erabiltzea izan da soluzioa: ENKOFLEX lauzen enkofratua eta T-60 zinbria markoduna. ENKOFLEXekin malgutasun handia lortu da eta hainbat enkofratze soluzio konfiguratu dira. Lauzen geometria eta lodiera bakoitzeko soluzio bat. Hala, enkofratua optimizatzea lortu da.

T-60 zinbriarako 18.000 marko hornitu dira, izan ere, marko gama zabala du, eta karga handiei eusteko ahalmena eta torlojuen eta altuera txikiagoko markoen bitartez doitzeko ahalmen bikaina. Sistema horrekin azkar, seguru eta eraginkortasunez konpondu ahal izan dira eraikinaren solairuetan agertu diren altueren kasuistika desberdinei.



## ULMA ORGA JASOTZAILIAK

### Garaipenaren bila

**MITSUBISHI ORGAK BI ALDIZ NOMINATU DITUZTE BIKAINASUNERAKO FLTA URTEKO SARIETAN**

Orga Jasotzaileen Elkarte autoritate liderra da Erresuma Batuan orgekin egiten diren operazioei dagokienez, eta, ez behin, bitan baizik aitortu ditu Mitsubishi Forklift Trucks modeloak, Bikaintasunaren Sarien urteko zerrendan.

Bere modelo berrietako birekin Segurtasunaren eta berrikuntzaren kategorietako finalista izanik, EDiA EX 80 voltekko kontrapisatu elektrikoarekin eta oso ingurune hotzetarako egokitutako SENSA orga atzeragarrien gamarako

kabinarekin, Mitsubishi industriako izenik garrantzitsuenekin lehiatuko da Archie estatutuak preziatuaren bila.

Espanian ULMA Orga Jasotzaileek eskusiban banatzen duten Mitsubishi Forklift Trucks marka ez da berria horrelako sariketetan Bere produktuen diseinuak diseinuaren hainbat sari irabazi ditu, barrualdeko gamengatik eta elektrikoengatik, eta FLTA sarien lau kategorietako bakoitzean Archie bat irabazten zuen lehen enpresa izan zen (Ingurumena, Ergonomia, Segurtasuna eta Berrikuntza).

Aurtengo finalistak FLTA sarietako Batzorde Teknikoak erabakiko ditu, zeinak Sariaren irizpide zorrotzen arabera ebaluatzen dituen parte hartzaileak.



## ULMA TALDEA

### Gipuzkoako Diputatu Nagusi Markel Olano ULMA Taldean bisitan

Joan den martxoaren 1ean, Markel Olano Diputatu Nagusiak eta Ekonomiaren Sustapen, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka diputatu Ainhoa Aizpuruk ULMA Taldearen instalazioak bisitatu zituzten.

Bisitan zehar, Gipuzkoako Diputatu Nagusiak ULMA Taldea nabarmendu zuen, "jarrera lehiakorren adibide" izateagatik. Gainera, Olanok adierazi zuen ULMA foru erakundeak bultzatu nahi duen ereduari erantzuten diola, "berrikuntza, nazioartekotzea, lankidetzeta, kalitateko enplegua eta proiektuaren erdigunean pertsonak jartzea" bezalako jarrerekin.



## ULMA HANDLING SYSTEMS

### ULMAk 3 azokatan aurkeztu ditu bere soluzioak martxoan

ULMA Handling Systemsek intralogistikako soluzio integralak aurkeztu ditu **LogiMAT** azokaren 15. edizioan, zeina Stuttgarten egin den, Alemanian, baita ere **Intralogistics Europe 2017** azokan, Parisen, Frantzia. Gainera, **Passenger Terminal Expo** azokaren 20. edizioan parte hartu du (Amsterdam), bere Baggage Handling sistema integralak aurkeztuz.

"Shaping Change: Digital, Connected, Innovative" lelopean, intralogistikaren Europako azoka nagusitzat jotzen den **LogiMAT** feriak bere 15. edizioa egin du. "Mega-joerak", hala nola **Industry 4.0**, gauzen Internet, digitalizazioa eta e-commerce erabateko aldaketa eragiten ari dira balio erantsiko prozesuetan. Horregatik,

produktu berriak eta soluzio berriak behar dira.

Gainera, **Intralogistics Europe** erakundearen arabera, aldaketa handia gertatu da biltegiatzeko logistikari dagokionez: gaur egungo berrikuntza intralogistikoaren barruan daude transjasogailuak, paletizatze robotak, eskariak prestatzeko sistema automatizatuak, garraio automatikorako sistema adimendunak, objektu konektatuak eta urruneko monitorizazioa. **4.0 Logistikaren aroa da.**

Bien bitartean, **Passenger Terminal Expo**ko eszenatokian erakutsi ditu ULMAk bere Baggage Handling sistema integralak, produktu aukera zabalarekin eta soluzio

modularrekin, zeinak aireportu guztietako behar berezietara egokitzen diren. Azokaren antolatzaileen arabera, Amsterdam izan da sektorearen azken proiektuak, joerak eta garapenak ezagutzeko lekua.



## ULMA CONVEYOR COMPONENTS

### Nazioarteko hedapena

ULMA Conveyor Componentsek, bere sare komertziala hedatzeko estrategiaren barruan, bi pertsona kontratatu ditu Peruko eta AEBko filialetarako.

Peruko filialerako Rosember Hector Cornejo Arce kontratatu da. Arduradun Komertzialaren eginkizunak egingo ditu, Peruko operazioen eremua zabaltzeko helburuarekin. Bere ardura nagusia Southern Peruri erantzutea izango da, bere hiru instalazioetan: Toquepala eta Cuajone meategiak eta ILO portua eta fundizioa.

Rosemberrek esperientzia handia dauka Peruko meatzaritzaren sektorean, bertan garatu baitu ia bere ibilbide profesional osoa, eta, halaber, Southern Peruz arduratu da hainbat konpainiarentzat.

AEBri dagokionez, UCCTik Juan Zarateren zerbitzuak kontratatu dira Business Development Americas moduan, egoitza Denverren jarrira (Colorado), AEBko eta Kanadako Banaketa Sarea garatzeko helburuarekin.

Juan Zarate Meatzaritzaren sektoretik dator, non bere ibilbide profesionala garatu duen, bai Newmont Mining Corporation edo Golden Star Resources Ltd. Meategi enpresetan, bai meatzaritzarako materiala hornitzeko konpainietan, esaterako, Esco Corporationen eta Bradken USAn.

Bi kontratazio berri horiekin, ULMA Conveyor Componentsek agerian jarri du Amerikako kontinentearen alde egin duen apustua.



## ULMA AGRICOLA

### Berrotegiak mexikar florikulturarako

ULMA Agricolak 1 ha baino gehiagoko instalazio bat amaitu berri du florikulturaren diharduen Mexikoko enpresa garrantzitsu batentzat. Enpresak nazioarteko errekonozimendua irabazi du, landatzen dituen produktuen kalitateagatik. Bere ezaugarri berezia da merkatuak eskatzen dituen kalitate, arreta eta gogobetetze mailak bultzatzen dituzten xehetasun guztiak zaintzen dituela.

Florikultura modu industrializatuan lore eta landare apaingarrien landaketan diharduen hortikulturaren diziplina da, apaintzeko edo kosmetikaren edo medikuntzaren arloetan erabiltzeko. Oro har, oso labore zorrotza da baldintza klimatikoetara argitasunari dagokionez, eta, horregatik, hil edo bizikoa da berotegian sartuko diren elementu

osagarri guztiak egoki hautatzea eta dimentsionatzea.

ULMA Agricolak esperientzia handia dauka horrelako labore mota delikatuaren beharrik asetzeko instalazioak eraikitzeko orduan.

Oraingoan, proiektua 4 gune berezitan banatzea erabaki zen, horietako bakoitzean ekoiztiko den landare motaren arabera. Barruko klima kontrolatzeko, kamera bikoitzeko sistema bat instalatu da, birzirkulatuak, ur beroko berogailuak, eta barruko eta kanpoko pantaila termikoa. Ekipamenduak modu independentean kontrolatzen dira gune bakoitzean eta, horrenbestez, bakoitzaren kudeaketa egokitu daiteke, landare mota bakoitzaren ezaugarri zehatzen arabera.

## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### ULMA Architectural Solutionsen euskarri komertzial eta korporatibo berriak euskaraz

ULMA Architectural Solutionsen, kooperatiba barruan euskararen erabilaren normalizazioa eta sentsibilizazioa funtsezko balioa da. ULMA Talde barruan eta inguruko kooperatibetan euskaraz erabilitako euskarri buruzko azterketa bat egin ondoren, ULMA Architectural Solutionsek bere euskarri korporatibo eta komertzial garrantzitsuenak euskarara egokitu ditu.

Egokitutako dokumentu fisikoak hauek izan dira: fatxadak birgaitzeko eskuliburua, gure drainatze sistemen gama osoaren eskuliburua eta katalogo orokorra, zeinetan gure negozio lerro guztiak agertzen diren.

Era berean, ikus-entzunezko euskarri

dagokienez, bideo korporatiboa eta fatxadak birgaitzeko bideoa editatu dira.

Horrela, gure helburu nagusia da gure

bezeroei gertuko eta konfiantzazko arreta eskaintzea, gure jatorriak ahaztu gabe.





## Markel Olano

### Gipuzkoako Diputatu Nagusia

1965eko ekainaren 2an jaio zen, Beasainen. Filosofian lizentziatua da, eta bere ibilbide politikoa zehar hainbat kargu bete ditu EAJren barruan. Alderdiaren arduradun nagusia izan da hainbat arlotan, hala nola hezkuntzan, kulturean edo teknologia berrietan. Gaur egun bere bigarren etapari egiten ari zaio aurre Gipuzkoako Diputatu Nagusiaren karguan.



« Gure gizartea jo duen krisi ekonomiko gogorreko urte hauen ondoren, Markel Olanok nola kalifikatuko luke Gipuzkoaren gaur egungo egoera sozial eta ekonomikoa?

Susperraldi progresiboko egoera bat da, baina nazioarteko testuinguru aldakorren ondorioz enpresak etengabeko tentsioan daude. Oro har, denek diote eskariak eta fakturazioa berreskuratzen ari direla, baina ere berean marjinak estutzen ari direla. Gainera, hainbat fronte daude zabalik (nazioartekotzea, I+G+B, 4.0 Industria...), eta horrek eragiten

du unea zirrargarria izatea eta, aldi berean, kritikoa, apustuak edo orain egiten dira edo desindustrializazio prozesuan erori gaitzkeelako. Eta Diputazioak testuinguru horretan duen jarrera da enpresengandik hurbil egotea, industria lehiakorra eta sozialki aurreratua bultzatzeko. Horrela baino ez dugu lortuko Gipuzkoako eredu sozio-ekonomikoa mantentzea, non gure industriaren eta enpresen lehiakortasunak ahalbidetuko digun enplegua sortzea eta kalitateko gizarte zerbitzuak mantentzea, eta horrela desberdintasunen aurka borrokatzea, maila guztietan.

« Krisiak, urte hauetan guztietan, agerian utzi ditu mehatxu batzuk, eta baita aukera asko ere. Gipuzkoako Diputatu Nagusiak uste du gipuzkoar gizartea prestatuta dagoela datozkigun erronkei behar bezala heltzeko?

Krisi urte hauek ekarri dutenaren ondoren, eta oraindik ere familia eta lagun asko ondorioak sufritzen ari direlarik, nik ikusten dut gipuzkoar gizartea kezkatuta dagoela baina, aldi berean, etorkizuna eraikitze konprometituta, ongizate eta elkartasun kota handiagoak lortzeko aurrera egiteko. Gipuzkoak bere azpiegiturak modernizatu nahi

*Euskal Mugimendu kooperatiboa mundu mailako lankidetzaz bidezko lanaren erreferentzia da, eta Gipuzkoa erakusten du mundu osoan, ezagutzaren inguruko kontzeptu aurreratuei lotuta, adimenari, lehiakortasunari, berrikuntzari eta ikerketari lotuta, baina baita beste errealitate batzuei lotuta ere, horien artean elkartasuna, lankidetzaz, auzolana, dibertsitatea eta lanaren kultura.*

ditu, bere produkzio sistemak, gizarte ongizatea, baina era berean gero eta justuagoa izango den gizarte bat eraikiz, desberdintasun gutxiagorekin. Uste dut gure gizartea erronka horiei heltzeko prest dagoela. Lurralde moduan, anbiziotsuak izan behar dugu, eta Europako eredu aurreratuagoi erreparatu, alde batetik, gure industria lehiakortasun maila handiagoetara aldatzeko, eta, bestetik, gizartearen desafioei erantzuteko, horien artean egonik kontziliazioa eta koerantzukizuna, gizartearen zahartzea eta kolektiborik ahulenen laneratzea.

« Gure lurraldearen indarretako bat bertako industri sarea izan da; gainera, Gipuzkoako gizarte ekintzailea izan da beti. Markel Olanok uste du halakoak izaten jarraitzen dugula? Zer da erakundeetatik egiten ari dena jardura ekintzailea eta industrialia bultzatzeko?

Ezagutu ditugun ongizate mailak mantendu nahi baditugu, industriaren alde egiten jarraitu beharko dugu, ekonomiaren motor gisa. Eta gaur egungo industri sarea badugu –punta-puntakoa alderdi askotan– izan da pertsona askok ekintzailetzan jarduten jakin dutelako, oso gogor lan egin dutelako proiektu baten inguruan, beste lagun batzuekin besoz beso, eta gure enpresak aurrera ateratzeko beharrezko ikuspegia izan dutelako. Legealdi honen hasieratik, Gipuzkoako Foru Aldundiak ekonomia suspertzea jarri dio bere buruari helburutzat, eta horretarako 2015-2019 Ekonomia Suspertzeko Plana aktibatu du, 200 milioi euroekin hornituta. Plan horretako programetako bat, hain zuzen ere, ekintzailetza sustatzera zuzenduta dago. Puntu honetan nabarmendu nahi dut enpresetan bertan barne-

ekintzailetza bultzatu behar dela. Hau da, enpresek beraiek ideiak identifikatu eta sortu behar dituzte negozio lerro berri bat sortzeko edo dituzten produktuetan hobekuntza berritzaileak egiteko. ULMA, hain zuzen ere, oso adibide ona da ildo horretan, barne-ekintzailetzaren garrantzia erakusten baitigu, dibertsifikatzeko eta negozio lerro berriak sortzeko aukerak ematen dituelako.

« Gipuzkoan dagoen ingurune kooperatiboak tradizio industrial handia du atzean. Markel Olanoren iritziz, mundu kooperatiboak eragina izan du Gipuzkoaren garapen sozialean eta ekonomikoa?

Ez da gehiegikeria esatea Gipuzkoa ez litzatekeela lurralde bera izango mundu kooperatiboa gabe. Gure gizartea, gure enpresak, desberdinak lirateke, eta horregatik uste dut mundu kooperatiboak erabateko ekarpena egin diola Gipuzkoaren garapenari. MONDRAGON da gure lurraldeak dituen aktiborik aipagarrienetakoa, eta Gipuzkoako gizartearen balioak ondoen erakusten dituenetakoa, gure lan egiteko eta izateko era. Euskal Mugimendu kooperatiboa mundu mailako lankidetzaz bidezko lanaren erreferentzia da, eta Gipuzkoa erakusten du mundu osoan, ezagutzaren inguruko kontzeptu aurreratuei lotuta, adimenari, lehiakortasunari, berrikuntzari eta ikerketari lotuta, baina baita beste errealitate batzuei lotuta ere, horien artean elkartasuna, lankidetzaz, auzolana, dibertsitatea eta lanaren kultura.

« Amaitzeko, duela gutxi ULMA Taldea bisitatu duzu, Gipuzkoako Diputatu Nagusia zaren heinean. Zer esan diezagukezu ULMAz?

**Mezurik bai bertako bazkide eta langileentzat?**

ULMAk eta, oro har, MONDRAGON osoak lurraldearekin eta gizartea osatzen duten lagunekin duen konpromisoa nabarmendu eta aitortu nahi nuke. Konpromiso horren ondorioz, ULMAk 600 pertsona gehiago kontratatu ditu azken urteotan, krisi garaian. Aitortza hori azpimarratu nahi nuke, eta, hortik aurrera, zorionak eman proiektua osatzen duten pertsona guztiei. ULMAk erakusten digu berrikuntzaren eta lehiakortasunaren aldeko apustu sendoa eta etengabea eginez, enpresen aukerak handitu egiten direla. ULMAk bide horren baliagarritasuna erakusten digu, lurralde moduan aurre egin beharreko etorkizuneko erronketarako ere.

*ULMAk erakusten digu berrikuntzaren eta lehiakortasunaren aldeko apustu sendoa eta etengabea eginez, enpresen aukerak handitu egiten direla.*

# Susana Unzurrunzaga, 45 urte ULMAn lanean



**SUSANA UNZURRUNZAGA.**  
ULMA Packaging  
**ULMA Taldean bazkide aktibo gisa denbora gehien daramana, 1972ko maiatzetik ULMAn.**

« Gure datuak zuzenak badira ULMAn 1972ko maiatzean hasi zinen lanean. Aurten 45 urte beteko dituzu gurean eta, horregatik, zu zara bazkide aktiboan artean denbora gehien daramana, ez bakarrik Packagingen, ULMA Talde osoan ere bai. Bazenekien?, Erretiroa noizko?

Ez nengoen guztiz ziur, baina, bai, susmoa banuen horrela izan zitekeela. Aurreko batean, erretiratzeko gutxi falta zaien beste lankide batzuekin berriketan eta kontuak egiten aritu ginen; eta ematen zuen ni nintzela Packagingen urte gehien zeramana.

Ez nekiena zen ULMA Talde osoan ere neu nintzela antzinatean handienekoa.

Eta jubilatzeari dagokionez, data 2018ko otsailaren bukaera izango litzateke, baina, aurre-jubilatzeko LagunArok ematen dituen laguntzekin, espero dut aurtengo uztailearen bukaeran izatea. Ikusiko dugu zer gertatzen den...

« Susana, kontatu nolakoa izan zen kooperatiban lanean hastea eta bertan egin duzun ibilbidea.

Eneeee, hainbeste urte pasa dira!!!, baina niretzat lehenengo lana zen, dena zen berria. Ikusmin handia nuen. Egia esateko, hemen aurkitu nituen pertsonak oso-osoa onak eta maitekorrak ziren eta ezin dut berba erdirik ere esan haien aurka.



Eurak izan ziren mugitzen ari garen mundu hau benetan nolakoa den erakutsi zidatenak, kooperatibismoaren ezagutzak irakatsi zizkidatenak eta, nola ez, talde lanaren beharra sartu zidatenak. Beti-beti adieraziko diet nire esker ona.

Nire ibilbidea gorabeheratsua izan da. Une oso onak izan ditut, ez hain onak eta baita txarrak ere.

Uneren batean guztiok pasa izan ditugu une benetan zailak kooperatiban. Esaterako, 1984ko krisian. Ez genekien nola bukatuko zen krisi hura eta ahalegin handiak egin behar izan genituen, baina irten egin ginen eta hemen gaude, sendoago, handiago eta, azken batean, Negozio handi eta Talde handi batekin.

Niri dagokidanez, delineatzaile lanean hasi nintzen eta, gero, berregituraketekin eta enparauekin, denetariko lanak egitea egokitu zait, "fotokopien neska", erosketa departamenduan...; eta, orain, mekanizatuen departamenduan nago, administrazioko kontu guztiak eramaten.

« Laneko esperientzia zabal horretan, denetatik izango zenuen, ezta? Ze une gogoratzen duzu bereziki? Lehenengo urteak gogoratzea dut gustuko. Maitasun bereziz gogoratzen ditut, orduan benetako laguntasuna zegoelako, ez orain bezala. Elkarri lagundu eta elkar zaintzen genuen. Beharbada, izango zen ni oso gaztea nintzelako, baina beti nire lankideek babesten nindutela sentitzen nuen eta, gaur egun, sentimendu hori daukat

eurekiko. Egun, hori hutsune gisa ikusten dut. Horregatik, bada, hasierako urte horiek dira era berezian gogoan dauzkadanak.

« ULMAn hainbeste urtez lan egin ondoren, aukera izan duzu kooperatibaren eta ULMA Taldearen bilakaera ikusteko. Zuk zeuk nola bizi izan duzu bilakaera hori eta nola ikusten duzu etorkizuna?

Argi dago kooperatiba ondo joan dela; ondo esan dut, baina oso ondo esango nuke, Negozioari dagokionean.

Ni hasi nintzanean guztiok elkarrekin geunden, Eraikuntza eta Packaging Otadui Gotzaina kalean, eta Negozio bakarra osatzen zuten. Denbora aurrera joan ahala, handitu egin gara eta Negozio bakoitzak bere bidea jarraitu du. Niri iruditzen zait, banaketa hori onerako izan zela, bi negozioak ere guztiz desberdinak zirelako. Horrela, Negozio bakoitzak bere garapena izan du, bestearena kontuan hartu gabe.

Bestaldetik, pentsatzen dut bidean laguntasuna gelditu dela, kooperatibismo sentazioa eta sentimendu pila bat, nire ustez berezkoak izan beharko liritekeenak honelako enpresetan. Orain uste dut gehiegizko burokrasia dagoela, bakoitza berera doala, zuzendariak beste maila batean daudela, hor nonbaiten, bazkideengandik oso urruti. Hori guztia kooperatiba batean, hori printzipioz baztertuta egon beharko litzakeenean. Hau, jada, ez da kooperatiba bat, beste zerbait baizik.

Gainerakoan, etorkizunaz pentsatzen

« Lehenengo urteak gogoratzea dut gustuko. Maitasun bereziz gogoratzen ditut, orduan benetako laguntasuna zegoelako.

dudanean, uste dut ondo joango dela. Ez dakit gehiago haziko diren ala ez, baina batuta jarraitzen badute, uste dut ondo joango dela.

« Zeintzuk pertsona dituzu buruan, zure laneko ibilbidean ia 45 urte bete ondoren eta zergatik?

Lehenengo, inolako zalantzarik gabe, nire ahizpa Maite, berak barneratu gintuelako kooperatiben munduan, ni lehenengo eta, gero, nire ahizpa Marilo. Ondorengoak ere gogoan ditut, Vicente Elguero (nire lehenengo arduraduna), Jose Andres Igartua eta ULMAn egin nituen lehen urteetan lankide izan nituen guztiak. Eskerrak eman nahi dizkiet guztiei eman zizkidaten onarpenagatik, adiskidetasunagatik eta laguntzagatik.

« Azkenik, ULMAn bizi izandako guztiarekin, baduzu mezuren bat ULMako lankideentzat?

Ilusioz eta gogoz jarrai dezatela. Negozio handia eta Talde handia dituzte, eta merezi duela horren alde lan egitea.

Atal honetan egunean jarri nahi zaitugu zure Fundazioak egiten duenari buruz, ULMA osatzen dugun pertsonekin lankidetzan, gizartea eredu gizatiarrago eta iraunkorrago batera eraldatzeko dugun konpromisoa gauzatzeko modu gisa.

## Gizarte pribilegiatua

### « Raul, zer moduz Mundukideko lehendakari gisa?

Oso ondo. Ez dit dedikazio handirik eskatzen, baina, hemen daramatzadan hilabeteetan, aukera izan dut gauzak ikasteko eta gai batzuetan aktiboki parte hartzeko.

### « Horregatik abiatu zen ULMA "minutu bat egunero" kanpaina?

Bai, horrela da. Kanpainari ekiteko prentsaurrekoa egin ostean, Oñatiko ULMA guztietan aritu gara, 10 astez, urritik abendura, "minutuak" lortzen.

### « Eta zenbaterik eman du bere eguneroko minutua ULMA-n?

Gaur egun 11 pertsona dira.

### « Hori gutxi da, ala?

Bai, kopurua uste genuena baino dezente txikiagoa da, baina kanpaina oraindik zabalik dago.

### « Zure ustez, zergatik lortu dira emaitza hain kaskarrak?

Ez dakit, bada, beharbada horrelako gaiak ez zaizkigulako interesatzen, edo aspertzen hasita gaudelako hainbeste kanpaina solidarioekin. Uste dut, orokorrean, horrelako gaiak eragin txikia dutela gudan. Baina, bestalde, egia da pertsona askok egiten dituztela ekarpenak edo asko daudela inplikaturata hainbat erakundetan.

### « Kanpaina ikusi ez duenarentzat, laburpen txiki bat egiterik bai?

Kontua da zure soldatetik kopuru txiki bat ematea, Mundukidek bere programak munduko inguru behartsuetan garatzen jarrai dezan.

### « Kopuru txikia diozu, baina zenbatekoa, adibideren bat?

Eguneko minutu bat zure soldataren %0,2 da. Ez dugu %0,7 ospetsua ere eskatzen, nahiz eta badagoen nahi beste minutu ematea.

Adibidea jartzeko, norbaitek hilean 2.000 euro garbi irabazten baditu, eguneko minutu bat 4,17 euro izango lirarteke hilean.

### « Zer esango zenioke hau irakurtzen ari denari, animatu dadin?

www.minutubategunero.org webean ariketa hori egiteko kalkulagailua dago. Jendea animatu nahi dut gutxienez proba egin dezaten.

Gu pertsona pribilegiatuak gara munduan oso baldintza onak dituen inguru batean bizi garelako, baina hor kanpoan premia gorrian bizi dira eta desberdintasun handiak daude.

Gobernuei eta beste erakunde batzuei gauza asko eskatzea dugu, baina beti dago zerbait gutako bakoitzak egin dezakeena. Adibidez, orain badago aukera SMS mezu bat bidaltzeko 28014ra, MUNDUKIDE berbarekin, eta, horrela, mezuko 1,20 euro eman Mundukidek Mozambiken duen proiektuari laguntzeko. Izan ere, ez dugu ahaztu behar, gutxien dutenei laguntzea dela gure eredu kooperatiboaren oinarria.

### « Jo dezagun ULMAko langile guztiak ematen dutela minutua, Mundukidek zer lor lezake ekarpen horrekin?

Horrelako ekarpen batekin Mundukidek laguntza emango lieke Balama eta Namunoko (Mozambike) komunitateetako 3.000 familia baino gehiagori, euren nekazaritza ustategiak martxan jarri, behar dituzten baliabideak eskaini eta labore bakoitzerako teknika egokienak erakusteko.

Guztira 700 hektareako lursailak familia horien eskura jarriko lirartekeenak eta urtebetera elikagaiak ekoizteko moduan egongo lirartekeenak.

### « Ariketa egiten jarraituta: ULMAko langile guztiak soldatetik %0,7 emango balute...

Bada, orduan, adibidez, Brasilen dauden 334 kokalekutan hiru urtetan egin liteke lan. Han 26.748 pertsona bizi dira eta prestakuntza emango genieke euren kooperatiben kudeaketa hobetzen laguntzeko. 6.000 bazkide dira, gizonak zein emakumeak, eta arroza, esnea, barazkiak, haragiak, haziak... ekoizten dituzte. Gure laguntzarekin produktibitatea haziko litzateke eta euren produktuak gehiago saltzeko aukera izango lukete. Emakumeen eskubideak ere indartuko lirarteke.

### « Orain ULMA Fundazioak beste era batera laguntzeko aukera eskaintzen du, esperientzia solidarioa bizitzeko bidaia ahaztezina eginda. Kontaiguzu:

Uste dugu horrelako esperientzia bat bizitzea oso aberasgarria dela, pertsona horrek bizitzan inoiz ahaztuko ez duena. Era ona da kontzientzia hartzeko. Askok izan dute noizbait bidaia solidario bat egiteko gogo, baina ez dute azken erabakia hartu edo ez dakite nola egin. Orain ULMA Fundazioak bere bazkideei hainbat aukera eskaintzen dizkie, esperientzia solidario bat bizi eta ekarpena egin dezaten munduko hainbat programa eta lekutan.

### « Zein profil izan beharko luke horretarako pertsona egokiak?

Eskaintzeko hainbat proposamen daudenez, kontua da interesa duen pertsona bakoitzaren profil profesionala ikustea, aztertzea zer ekarpen egin dezakeen joan nahi duen tokian eta nola uztartzen den Mundukidek dituen beharrek. Dena zabalik dago, orain pieza guztiakin puzzlea osatzea da kontua. Beste aukera bat izango da egun batzuetako bisita egitea, lan zehatzik gabe eskatu gabe eta interesatuak duen profil profesionala edozein dela ere.



\*1,20€/sms  
MUNDUKIDEK Mozambiken duen proiektuaren aldeko dohaintza osoa

### « Eta Fundazioak nola lagunduko du bidaia horretan?

Unea iristen denean, hori Mundukide, pertsona interesatua eta ULMA Fundazioaren artean adostuko dugu. Lehen esan dudan bezala, aukera desberdinak egongo dira eta kontua izango da eseri eta berba egitea.

### « Norbaitek interesa balu, zer egin beharko luke?

Elkarriketa hau aprobetxatu nahi dut esateko norbaitek interesa badu jar dadila ULMA Fundazioarekin harremanetan, inolako konpromisorik gabe.

- Helbide elektronikoa: fundacion@ulma.com

- telefonoa: 943 250 300.

Hitz egin ondoren, saiatuko gara aukerarik egokiena lotzen.

Azken erabakia hartzeko tartea egongo da, beharrezko informazioa eduki eta hausnartu ondoren.

Nahiko genuke, apirilera, mahai gainean proposamen zehatzak izatea eta interesatutako pertsonak erabakiak hartzen egon ahal izatea.



ULMA Fundazioak inoiz ahaztuko ez duzun bidaia solidarioa egitera gonbidatu nahi zaitu.  
Erakartzen zaitu ideiak?  
Informa zaitez ekinza honi buruz  
www.ulmafundazioa.com  
web orrialdean,  
943 250 300 telefonoan  
edo idatzi hona:  
ulmafundazioa@ulma.com


## Iraganari keinuka



### TH-4 JJEIP hormigoia garraiatzeko depositua

#### Negoio "emankor" baten hasiera

60ko urteak ziren TH-4 hormigoi makina sortu zenean, JJEIP markaren pean (gaur egun ULMA Construction). Ez dira asko izango produktu bitxi hori gogoratzen duten pertsonak, oso bide laburra egin baitzuen. Ez zen garai bateko JJEIP produktu izarretakoa, ez horixe, eta ez zen ale askorik saldu, besteak beste, hormigoia lehortu egiten zelako barruan. Halere, hormigoi makina horrek bitxikeria ugari ditu, izan ere, hormigoiaren faltan, "ardoa ona da", garai hartan pentsatuko zuten bezala. Zergatik diogun hori? Hainbat aldiz ardoa garraiatzeko erabili zelako eta, horrenbestez, esan daiteke ULMA ere krisiak asmamena zorrotzen duela...



HORRELAKO IRUDIREN BAT BALDIN BADUZU EDO MUGARRI HISTORIKO BAT GOGORATZEN BADUZU, JARRI GUREKIN HARREMANETAN, ULMAREN HISTORIA ERREPASATZEKO DUGUN ATAL HONETAN ARGITARATZEKO.

AURREZ ESKERRAK EMATEN DIZKIZUEGU ZUEN LAGUNTZAGATIKI



begira@ulma.com

ULMA Taldeko bideo guztiak

**Youtube**

Sartu zaituz ULMA Taldearen profilean

**LinkedIn**

**BEGIRA OnLine**

[www.begira.ulma.com/eu](http://www.begira.ulma.com/eu)

ULMA Taldeko aldizkari korporatiboa

**Flickr**

ULMA Taldearen azken berriak argazkien bitartez ezagutzeko

**Twitter**

Jarraitu ULMA Taldeari @GrupoULMATaldea

<http://portalde.ulma.com>

Gainera, gogoratu ULMAko langile guztiok dugula sarbidea PORTALDEn, ULMA Taldearen intranet korporatiboa. Hona aurkituko duzun informazioa: Araudiak, Barne Araudia, ULMAko langile izateagatik ditugun deskontuak eta abantailak, sarrerak eskatzeko aukera, lan deialdiak, medikuaren ordutegia, osasun informazioa eta Lagun Aroko medikuen zerrenda eta atzerrian dugun asistentzia, besteak beste.



**ULMA Taldeko  
beste talentuak**


Eurek dagoeneko kontatu dizkigute euren bizipenak,  
**Animatu eta kontaiguzu zeurea!**

Taldeko langile eta bazkideek bateratu egiten dituzte beren ibilbide profesionala eta exijentzia handiko zaletasunak; hola erakusten dute talentuarekin eta esfortzuarekin horma guztiak botatzen direla.

**Kontatu nahi dizkiguzu zure bizipenak?**

Jarri gurekin harremanetan: [begira@ulma.com](mailto:begira@ulma.com)

**ERRETIROAK: 2017ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra arte**



Begoña Urrestarazu Iraola

Jose Antonio Umeraz Ugarte

Jose Maria Espadamala Casbas

Rafael Aiestui Arregui

Juani Aguirre Beitia

Juncal Abaunz Biain

Felix Esperesate Gutierrez

**Eskerrik asko denoi eta ondo pasatu! Zorionak**